

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Itziar Elias Uria

*Azkoitia,
Gipuzkoa
(1980)*

Aurkibidea



Biografia



Azkoitin jaioa, aita bertakoa du eta ama Loiolakoa. Aktorea da, eta baita ZuOndoan proiektuaren sortzaileetako bat ere: harrera-familiak ezagutarazteko egitasmoa. Familia-ereduei buruz hitz egin dugu berarekin, eta baita bere aktore ibilbideaz ere.

Zintak

AZK-086

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-05-13
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

AZK-087

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2022-05-13
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Bestelako familia eredu

- **Erref:** AZK-086/003
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:02:14. **Bukatu:** 00:04:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Beraien familiaren berri ematen du.

2. Harreran hartutako umeak ezagutu zituen ikasle garaian Bilbon

- **Erref:** AZK-086/005

- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:05:16. **Bukatu:** 00:08:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Bilbon ikasten ari zela, ikasle-egoitzan, harreran hartutako neska-mutilak ezagutu zituen. Ez zuten beraien guraso biologikoengana joan nahi izaten eta mojekin geratu ahal izateko, gaiztakeriak egiten zituzten. Bizipena barnean geratu zitzaion.

3. Ume bat harreran hartzeko prozesua

- **Erref:** AZK-086/006
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:08:23. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Ume bat harreran hartzeko prozesua nolakoa izaten den kontatzen du zehatz. Adopzio prozesuarekiko antzekotasunak eta desberdintasunak aipatzen ditu. Azkenengo hitza familiak izaten du.

4. Larrialdi bategatik, umea harreran hartu zutenekoa

- **Erref:** AZK-086/007
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:14:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Umea harreran hartu zuten garaian, ez zegoen larrialdiko harrera familiarik. Ume txikiak ere pisu handietan hezitzaileekin egoten ziren. Larrialdi bategatik, etxean hartu zuten hilabeteko umea. Hasiera oso pozgarria eta naturala izan zela kontatzen du.

5. Harrerako umea hartu aurretik eta ondoren

- **Erref:** AZK-086/008
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:14:47. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Umearen bila joan zirenean, umearen izenaren kontua izan zuten hizketagai, urduritasunarengatik. Hain azkar izateko, oso ederra izan zela dio.

6. Harrerako umeak izaten du familia biologikoarekin harremana

- **Erref:** AZK-086/009
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:20:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Harrerako semeak badu harremana anai-arrebekin eta aita biologikoarekin, eta normal bizi du bere egoera. Nondik datorren badakiela dio, adopzioan hartutakoen aldean, eta adinaren arabera erantzunak ematen dizkiotela bere galderei.

7. Guraso biologikoak eta harrerakoak

- **Erref:** AZK-086/010
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:20:48. **Bukatu:** 00:22:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Azalpen handirik gabe ere, umeek nabaritzen dituzte guraso biologikoen eta harrerakoen arteko desberdintasunak.

8. Harrera iraunkorra edo denbora baterakoa aukeran

- **Erref:** AZK-086/011
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:22:13. **Bukatu:** 00:25:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Harrerako prozesuan erabakitzen da harrera iraunkorra edo denbora baterakoa aukeratzeko duzun. Eraikitako harremana mantendu egingo litzateke, umea bere guraso biologikoengana itzuliko balitz ere. Aldundiarekin eta hezitzaileekin harremana iraunkorra izaten da.

9. Umea familia biologikoarengana itzultzea, ederra

- **Erref:** AZK-086/012
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:25:39. **Bukatu:** 00:26:28

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Harreran sartzen den familiak barneratuta izaten du denbora baterako izan daitekeela. Bere ustez, bukaera zorionsua litzateke berezko aita eta amarengana itzultzea ere.

10. Jaioberria hilabete batzuez harreran izan zutenekoa

- **Erref:** AZK-086/013
- **Iraupena:** 0:06:11. **Hasi:** 00:26:28. **Bukatu:** 00:32:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Larrialdiko egoera batean, ume jaioberria hartu zutenekoa kontatzen du. Asko gozatu zuten. Osaba-izeba batzuengana eraman zuten hilabete batzuen ondoren eta agurra oso ederra izatea lortu zuten. Ume harekin harremana mantentzen du eta oso harro dagoela dio.

11. Harreraren gaia gizarteratzeko beharra

- **Erref:** AZK-086/014
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:32:39. **Bukatu:** 00:35:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Harrera familiena tabua zela konturatu zen, eta aurreiritzi asko zeudela. Jendeak harrera behar duten umeak ezagutuko balitu, harrera familien zerrenda luzea egongo litzatekeela dio.

12. ZuOndoan, harrera-familien berri emateko

- **Erref:** AZK-086/015
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:35:14. **Bukatu:** 00:37:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

ZuOndoan programaren berri ematen du. Kontatzen du etxekoei azaldu zienean umea harreran hartzeko prest zegoela, beldurra eta kezka adierazi

zizkitela, eta oso bestelako iritziak izan zituztela Itziarren beraren amak eta ahizpak umea harreraren hartu ondoren. Mezu hori zabaldu nahi izan dute: harrera familiek natural bizi dutela egoera eta beldurra kanpotik datorren begiradak izaten duela.

13. Familia guztiak dira desberdinak

- **Erref:** AZK-086/019
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 00:40:29. **Bukatu:** 00:44:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak

Laburpena:

Aita, ama eta bi umez osatutako familiak existitzen duela eta prototipoa dela dio, baina bestelakoak ere badaudela. Pena edo harridura ematen dio seme-alaba kopuruarengatik kritikak jasotzea. Anekdotak bat kontatzen du. Aipatzen du askotan familia perfektu bakarraren irudia mantendu nahi izaten dela baina etxe bakoitzean oso modu desberdinean funtzionatzen dela benetan.

14. Amatasuna bakoitzak bere erara

- **Erref:** AZK-086/023
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:47:31. **Bukatu:** 00:49:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

<p>Amatasuna bakoitzak ahal duen moduan bizi duela dio. Bikote berria parte hartzaileagoa dela kontatzen du eta bera ere partekatzen ikasten ari dela. Berak ez du presiorik sentitu ama izateko.</p>

Transkripzioa

- Eta zuk amatasuna... hau igual ya da beste gai bat, e? Baiña... Amatasuna ta aitatasunea berdin irakurtzen dira? Ala ama izateko presioa, "arroza"ren kontua... eta hori zuk nola...?

- Eee... ez dakit, ez die igualak. Bueno, nik nere kasun, nik nerie esango det /esangot/, nik nere akatsakin, nik ama... "todoterreno". Osea ni, neri gustatzen zaizkitela gauzak ematie. Ta askotan akatsa iten det /itet/ hortan, osea, nik... neri gustatzen zatelako kontrolatzie gauzie ta askotan neuk akaparitzen det /akaparatzet/. Ta beste gauz batzutan pues ez naute hainbeste lagundu, ta beste batzutan bai. Ez dakit. Osea, azkenin bakoitzek, ez? esaten genduna, nahi duna ta ahal deuna diferentia dala, ez?

Ez dakit nola esplika hau. Nik neuri nere umin gauzek gustatzen zaizkit kontrolatzie. Hori dudeik ez dauket, ta gaitia naiz zoriontsu hola. Ordun, oin bikote berrixekin ta hola, pues, adibidez, hori, ba, bea're oso parteartzaillie da ta ikisten ai naiz partekatze hau. Eta ez da errexa. Ez da errexa. Osea, ohittu in ber ze ta ikixi in ber dezu baitte partekatze kontu hau. Ez bazaude ohittuta, hola da. Kriston earra, ez? Badauzke... berez

hola izen berko luke ta earra, baiño zu baldin basea holakue, zeuk ein beherrekue dana, kostau eitten da /eittea/ hori baitte. Ez dakit. Nik ez det sekule euki... estereotipotan ez det xinisten, ordun, ez det euki roxa ta istorixek kontuten sekule ez dittut euki eta, ez dakit nola esan, ez naiz ikusi... ez naiz ikusi derriortute ama izetea, ez derriortute ni bakarrik nere umin gauzek nik kontrolatzea o zea. Neuk gustoz in det eta ama izetie nik erabaki nun ta gustoa erabaki nun ta umin gauzek ematen´e ta beaxen kontuk zea eittie o irakaslikin hitz eittie o bestie gustoa itten det /ittet/. Osea, gustau itten zat, gustoa nao umiekin ta gustoa bizi izen det.

15. Amatasuna arduraz eta gustoz

- **Erref:** AZK-086/024
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:49:59. **Bukatu:** 00:53:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi

Laburpena:

Jaso izan dituen komentario batzuk aipatzen ditu: "ama zarela? buff...", "laugarrena? ez didazu inbidiarik ematen..." eta horrelakoak. Ama izatea ardura handia dela dio baina berak gustoz egiten duela. Lehenengoarekin baino prestatuago sentitzen da laugarrenarekin.

16. Antzerkia, barruak askatzeko

- **Erref:** AZK-086/026
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:53:56. **Bukatu:** 00:56:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Antzerkia eskolan egin zuen lehenengo aldiz. Denbora batez lagata izan zuen eta ondoren Azpeitiko taldearekin hasi zen. Ama izatearren geldialdia egin zuen eta gero Iñigo Aranberriarekin hasi zen harrerarena lantzen. Gero serioago hartu zuen eta horretan jardun du. Bere barrukoa ateratzeko erabili izan du antzerkia sarri.

17. "Eskutitzak" antzezlanaren sorrera

- **Erref:** AZK-086/027
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:56:15. **Bukatu:** 00:59:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

"Eskutitzak" antzezlanari buruzkoak azaltzen ditu. Aitona-amonen gaztetako

maitasuna deskubritu zuen haien gutunak topatu zituenean. Errealitate hartatik fikzioa sortu zuten. Gidoia berak sortu zuen, hasieran zinemarako, eta lehiaketa batera aurkeztu zuen. Izaskun Arandia zegoen epaimahaian eta istorioa gustatu, elkarrekin berridatzi eta lehiaketara berriz aurkeztu zuten. Saria irabazi eta antzezlanaren bideratu ahal izan zuten.

18. "Eskutitzak" antzezlanaren lantzeko Ahotsak.eus

- **Erref:** AZK-087/001
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:00:08. **Bukatu:** 00:02:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

"Eskutitzak" antzezlari buruzkoak aipatzen ditu. Amonarena berak egin zuen antzezlanean. Ahotsak.eus-eko informazioa erabili zuen antzezlana girotzeko.

19. Antzerkia eta ahozko transmisio lantzeko, Ahotsak.eus

- **Erref:** AZK-087/002
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:02:45. **Bukatu:** 00:05:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

Laburpena:

Donostia 2016 saria irabazi zuten antzezlana prestatzeko. Luhusoko antzokian prestatu zuten eta hango ikastoletan klase batzuk ematea zen ordaina. Ahozko transmisioa landu zuen ikasleekin, ahotsak.eus baliatuz. Eskatu zien ikasleei ingurukoei bigarren mundu gerrari buruz galdetzeko eta bildutako informazioa gelara ekartzeko. Euskalkiak ere landu zituen.

20. "Bizimina" antzezlari buruzkoak

- **Erref:** AZK-087/004
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:07:19. **Bukatu:** 00:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Bizimina antzerkiaren aurretikoak. Osaba ETak hil zuen eta etiketatu egin dutela sentitu izan du. Beldurra zer den ikasi du eta amorruez ez jokatzeko ere bai. Elkarriketak egin zituzten eta antzezlanean txertatu.

21. Emakume aktoreen perfil fisiko zehatzen eskaera

- **Erref:** AZK-087/008
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:13:23. **Bukatu:** 00:16:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Orokorrean, aktoreak eskatzen direnean, emakumeen perfil fisiko oso zehatza eskatzen da, eta gizonena ez. Iruditzen zaio gizonezko zuzendari batzuek emakume aktoreak panpin moduan erabiltzen dituztela, umetan ez zutelako panpinekin jolastu, eta ez du jasaten.

22. Emakumeak badu hitza euskal antzerkian

- **Erref:** AZK-087/009
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:16:16. **Bukatu:** 00:18:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Euskal Herriko antzerkian oso gutxi direnez, denek ezagutzen dute elkar. Emakumeek gaur egun hitza badaukatela uste du. Hala ere, gauza asko lantzeko daudela dio, eta emakume zuzendari gutxi daudela oraindik. Amatasuna eta antzerkia uztartzea zaila dela dio, baina egin daitekeela.

23. Antzerkian, gizonak pixkanaka emakumeei leku egiten

- **Erref:** AZK-087/010
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:18:48. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Antzerkian, gizonezkoei kosta egin zaie emakumeei lekua egitea. Bide bat dela dio, egunerokoan aldaketak eginez egin behar dena.

24. Euskal telebistan, emakume aurkezleen irudia beti antzekoa

- **Erref:** AZK-087/012
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:21:06. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Batzuetan, gustokoak ez diren lanak egin behar izaten dituzte, nahi den lekuan eta moduan lan egiteko aukerarik beti ez delako izaten. Euskal Telebistako adibidea jartzen du; emakume aurkezlea beti takoiekin eta itxura batekin agertzen dela azaltzen du.

25. Aurrerantzean, adineko emakume gehiago antzerkian

- **Erref:** AZK-087/013
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:26:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Antzerkian lantzen denaren arabera, adineko emakumeek presentzia irabaz dezakete. Orain artean, oso antzerki komertziala egin dela dio, eta azken hamarkadan aldaketa handia sumatu du. Adin batetik aurrera, antzerkian oso emakume gutxi dabiltzala uste du, baina aurrerantzean aldatuko dela.

26. Bere gaztetako eta oraingo nesken moda

- **Erref:** AZK-087/016
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:30:14. **Bukatu:** 00:33:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gaztetan gorputza estali egiten zuten bere belaunaldiko emakumeek. Oraingo neska gazteak alde hortatik libreago ikusten ditu. Gaur egungo modan denetariko aukerak izaten dira.

27. Mutilek ere estetika zaintzen zuten eta dute

- **Erref:** AZK-087/017
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:33:12. **Bukatu:** 00:35:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Lehen eta orain, denak berdina jantzita joatea ohikoa da gazteengan. Mutilek ere, lehen eta orain, estetika zaintzen dutela uste du.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com